

# INDARKERI ZURRUMURRUAK

Maia Ansa Diez de Ure

Naturak sortzen gaitu eta naturari egiten diogu so, maiz. Naturak egiten gaitu zer, eta nola, eta guk naturarekin egiten dugunarekin bat, gara. Gara gu. Eta elkar bizi honek, elkar erlazionatze honek, talde senak, arautzen du ere gure nortasuna. Gure nortasunak gure erlazionatzea arautzen duen moduan. Eta dena dago elkar jokoan, etengabean eta tinko.

Bizitzak zalantzak dakarzkigu, momentu hotzak eta beroak, bizitzak gu gaitu eta guk daukagu bizitza. Eta gu gara gure bizitzako andre eta jaun, jabe eta maitale. Bizitzarekiko ditugun kontraesanekin bat.

Maiz sartzen gara korapiloetan, bide-ertz ilunetan. Maiz dauzkagu bizipen deserosoak, garena eta direnak azaleratzen dituztenak. Gure gizarteak eta gure arbasoena zenak sortu izan dituelako hainbat gaitz. Hainbat itzal eta joko okerrak, emakume eta gizonen artean. Pertsona orok barneratuta ditugun hainbat jarrera eta izate, gizarteak helarazitako balore eta ideiak. Eta gehienetan hauek izaten dira gure arteko oztopo itzelak, gure lanabesitsuak.

Emakumeok indarkeriaz blai pasatzen dugu bizitza, egunerokoan. Ezagutzen ditugun indarkeri asko, eta so egiten ez diegun beste hainbat. Mutu eta entzungor jasaten ditugun beste hainbat eraso ezkutu. Gure sena eta gorputzarekiko dituzten eta ditugun jarrera askoak dira ezintasunaren ukiulu. Esaerak, hitz gordeak, ibiltzen ditugun arropen zergatia, erlazionatzeko dugun modua, gurekiko dituzten ohiturak, dira denak behin eta berriz, biolentziak. Indarkeria sutsu eta zuzenekoak.

Besteentzako garelakoan baldintzatzen gaituzte emakumeok. Elkar bizi lanetan morroi. Eta gure gorputza bortxatzen dute behin eta berriz, komunikabideetan, saldu egiten dute. Gu garelakoan, ez izanik ere. Eta mezuak bidaltzen dizkigute etengabean, gure helburuak finkatuz, izatearekiko.

Eta ukitzen gaituzte, kaletik goazenean, edo festa lekuetan. Entzun nahi eta behar ez ditugunak esaten dizkigute, eta oihukatzen gaituzte belarrira. Eta prezioz estutzen dute, gure nortasuna, eta gure nahia. Gure nahia desorekatzen dute, haiena izateraino. Eta bihurtzen gaituzte gure eta haien preso, sentimenduak nahasten dizkigutenean.

Gure gona dotoreena jantzi eta desiroz begiratzen gaituztenean gaude indarkeripean, ilea solte daramagula, haizeak astinduz. Edo eskolan, kulero-ertza erakusten genuen horretan entzun beharrekoetan ere.

Eta etxean, espero ez zuten emakumea gineneko unean ere, zakarrak izan garen guztietan. Eta

autobusean, ezpainak pintaturik pareko gizonarekin gurutzatutako begiradak deseroso jarri gaituenetan ere. Nahi genuena nekez lortuko genuela sentiarazi digutenean, edo gure ausarkeria kontuan hartu ez denetan ere.

Ispiluaren aurrera joan eta birrikak kanporatuz begiratu garen guzti horietan, eta gure gorputzak deseroso sentiarazi gaituen horietan ere geunden indarkeriaz blai. Eta aitortuko genituzkeen beste une asko eta askoretan.

Jakin ez baitakite, zein emakume garen, ez dakiten bezala gure sena eta gorputzaren balioa. Gurea dena, ez dakite. Ez dakitelako zein den ona, eta zein txarra, guztion bizipenentzako. Ez dutelako nahi, gure ahalmenaren zabalpena. Ez gaituztelako gai ikusten, eraso baten aurrean ostikada bat eman eta garaile ateratzeko. Ez gaituztelako ikusi nahi, gure izatean dantzari.

Baina aterako gara, gaur ere, herri eta hirietako plazetara. Aterako gara, gutaz jantzita, senaz blai, nahi bezala, izatea inoiz baino sutsuago, ahalmentze prozesu horretan hegan. Eta oihukatuko diegu belarrietara, ezetz, hori ez dela bidea, eta joan daitezela haizea hartzera. Ez ditugulako gure ondoan nahi. Beste asko ez bezala.

Eta joango gara beste behin ispiluaren aurrera, eta esango diegu gure buruari zein ederrak garen. Eta kalera atera eta ilargi beteak argituko gaitu. Hark maite gaituelako guk gure burua maite izan duguna baino gehiago. Eta oihukatuko diegu amildegiari, ez garela inoren emazteak eta amak izan nahi, izan nahi ez dugun bitartean. Eta eman diezatela pikuak gure gorputzean haragi puska bat besterik ikusten ez duten guzti horiei. Eman diezatela sua. Ez gara inorren printzesak, behintzat nahi ez dugun bitartean.